

EGILEA: KEPA ERRASTI
ZUZENDARIA: GETARI ETXEGARAI

XAKE PRODUKZIOAK

ERIKA
OLAIZOLA

MIKEL
LASKURAIN

KEPA
ERRASTI

NEREA
GORRITI



LUR

Desio bakar bat eskatu ahalko bazenu,
zer eskatuko zenuke?

topic.



LUR

Desio bakar bat eskatu ahalko bazenu,
zer esaktuko zenuke?



Julian jostailu denda zahar baten jabe da. Egun gutxi barru Anek, bere bilobak, zortzi urte beteko ditu eta opari berezi bat prestatzen ari zaio; berarentzat propio egindako panpina. Anek eta Julianek bidaia zirraragarri bat hasiko dute panpinarekin batera, desioak betetzen dituen izar majikoaren bila. Itxuraz abentura irudimentsua dirudienak Aneren eta Jonen, bere aitaren, arteko harremana berbideratzen lagunduko du. Azken aldian, Jonek onarpen arazo bat dauka. Izan ere, Ane, mutila da.

LUR

XAKE produkzioak

LUR izena jarri diogu XAKE PRODUKZIOAK konpainia gaztearen lan berriari. Konpainia hau 2015ean sortu genuen KEPA ERRASTIk eta XABIER ORMAZABALEk. Gure estreineko lana, MAMI LEBRUN, 30 antzoki baino gehiagotan eskaini dugu eta lan horretxekin irabazi genuen 2018ko DONOSTIA ANTZERKI SARIA. Publiko familiarrago bati zuzentzeko asmoarekin gatzoz lan berri honekin.



KONTAKTUA:
xakeprodukzioak@gmail.com
637901252 (Xabi)
652738367 (Kepa)
www.xakeprodukzioak.eus

LUR

Talde artistikoa



ERIKA OLAIZOLA

Erika Olaizola Ane izango da; istorio honetako protagonista. Anek potota dauka eta mutila da. Aitona eta ama ziren hori onartzen zuten pertsona bakarrak. Orain, amaren faltan, inoiz baino beharrezkoagoa du aitaren babesa.



MIKEL LASKURAIN

Mikel Laskurain Julian izango da, "Olga Leku" jostailu dendako arima. Ane bilobari bidaia ahaztezin eta erabakigarri bat egiten lagunduko dio.



KEPA ERRASTI

Kepa Errasti Jon izango da. Aneren aita. Duela gutxi alargundu da eta ez da gai semearen errealitatea onartzeko. Berarentzat ere oso garrantzitsua izango da Julianek eta Anek egingo duten bidaia.



NEREA GORRITI

Nerea Gorriti Itsaso izango da. Itsaso musika irakaslea zen hilda dago. Anek askotan hitz egiten du berarekin. Obra honi soinua banda eta giroa zuzen jartzeaz arduratuko da eta pieza erabakigarria izango da historioan.

LUR

Zuzendaritza eta talde teknikoa



GETARI ETXEGARAI (Zuzendaria)

Aktore eta zuzendari moduan eskarmentu handikoa antzerkian zein telebistan. XAKE PRODUKZIOAKen aurreneko lana, MAMI LEBRUN, ere berak zuzendu zuen.



XABIER ORMAZABAL (Zuz. laguntzailea)

XAKE PRODUKZIOAKen sortzaileetako bat Kepa Errastirekin batera. Mami Lebrunen bezala, zuzendari laguntzaile funtzioak beteko ditu.



DAVID ALCORTA (Argiztapen diseinua)

Argiztapen diseinatzaile moduan hainbat antzerki lanetan ibilia estatu mailan zein nazioartean. MAMI LEBRUNekin hasitako elkarlanarekin jarraitu nahi izan dugu oraingoan ere.



PASCAL GAIGNE (Musika Konposizioa)

Ibilbide oparoko musika konposatzailea. Antzerkian, telebistan eta batez ere zineman entzun izan dira bere lanak. Gure aurreko lanean moduan proiektu honetan ere bere esku utziko dugu obrako musika.



EIDER IBARRONDO eta ISABEL ACOSTA (Eszenografia diseinua)

Eszenografo eta arkitekto hauek 2010az geroztik ari dira elkarrekin espazio eszenikoak diseinatzen. Graduondo amaierako lana elkarrekin egin ondoren hasi zuten beren ibilbide profesionala. Orduetik hainbat proiektu eszenikotan parte hartu dute.